



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/09/25

Hainbat ondo etorrik eta agur batek markau dabe agintaldi honetako Bizkaiko Batzar Nagusien Kontroleko lehenengo Osokoa

Osoko saioa amaitu ostean, Bizkaiko Batzar Nagusietako XI. Agintaldiko Kontroleko lehenengo Osokoa hasi da. Kontroleko osoko saioa, Aldundiko kargu barriek Gernikako Batzarretxeko Osokoen Aretoko atrilean izan daben estreinaldiak markau dau. Horreen artean egon dira Sergio Murillo Gizarte Ekintzako Diputatu eta Ainara Basurko Ekonomiaren Sustapeneko Diputatu, eta baita Izaskun Duque edo Xabier Benito batzarkideak be.

Murillok jaso dau eguneko gaien zerrendako lehenengo itauna. Arantza Urkaregik (EH Bildu), EAEko adinekoentzako egoitzen inguruko 126/2019 Dekretura egokitzeko bere Sailak hartu dituan neurrien gainean itaundu deutso. Murillok erantzun deutesonez, laneko plan bat daukie, foru egoitzak egokitzeko, sare guztia bultzatzeko eta orientetako eta, Ikuskaritzatik, prozesu guztia bideratzeko. “Zentro bakotxak egin behar dau lan, urte bi barru betebeharr guztiak beteta egon behar diralako”, adierazo dau Gizarte Ekintzako Diputatuak, eta, gehitu dauenez, azkenengo eguna heltzen danean, 2021eko irailaren 9an, betebeharr horreek beteten ez dituen zentroei baimena kenduko jake.

Iratxe Arriola EH Bilduko batzarkideak Uri Hondakinen Plan Integralaren barrikuspenaren inguruan itaundu dau Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu. “Ezaguna da EH Bilduk indarrean dagon planaren emaitzen inguruan daukan eretxia: bide okerretik goaz”, adierazo dau Arriolak. Unzuetak erantzun deutesonez, Bizkaian hondakinen %100ak jasoten dau tratamentua, kanpoko enpresa bati Plan barria agintzeko prozesua lizitazio fasean dago, eta bilketa organikoa eskualde guztietara zabalduko da.

Bere itaunean, Xabier Benitok (Elkarrekin Podemos), industria sektorean enpresak ixtea eta kaleratze kolektiboak egotea saihesteko martxan jarriko dituan neurrien ganean galdetu deutso Ekonomiaren Sustapeneko Diputatuari. Ainara Basurkok esan dauenez, berak zuzentzen dauen Sailak urteak daroaz enpresen ondoan beharrean, etorkizuna bermatzeko eta nazinoarte mailako erronkei aurre egiten laguntzeko, Brexita edo Txinaren eta Estatu Batuen arteko burruka komertziala, besteak beste, Eusko Jaurlaritzagaz eta Udalakaz koordinatu dagon eta enpresetako beharginakaz, zuzendaritzakaz eta konkurtso administratuzinoagaz denpora guztian hartu-emonak eukita egiten dan beharrean, hain zuzen be.

Bea Ilardia EH Bilduko bozeroaleak egin dau gaurko Kontroleko Osoko ahozko lehenengo erantzun eskea, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiari, hain zuzen be. Ilardiak, “Gizarte Ekintzako Diputatu izendatzeko orduan Murillo jaunaren egoera prozesala eta ikertzen ari diran gertakariak eta abaguneak kontuan izan ete dituan” galdetu deutso. Ilardiak azaldu dauenez, Murillo eta Haurtzaro Zerbitzuko hainbat teknikari eta arduradun ikertuta dagoz, ama bati custodia kentzeagaz erlazionatuko zigor kausa batean.

“Ondo ezagutzen dot zelan funtzionetan daben Gizarte Ekintza Zerbitzuko profesionalek eta zelan hartzen diran erabagiak”, erantzun dau Rementeriak, eta gehitu dauenez, une honetan epaitegietan dagon erabagia “profesional desbardinaren bost txosten teknikotan oinarrituta hartu zan”. “Gauzak txarto egingo doguz leku hau epaitegi bilakatzen badogu”, gehitu dau Ahaldun Nagusiak.

Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatuak, Laudioko hiltegia itxi ostean abeltzaintza sektorean sortu dan egoeraren eta basozainak Bizkaiko Foru Aldundiaren komunikazino zentroa izango danean integretako neurri teknikoen ganeko ahozko erantzun eske biri erantzun deutse. Gai horreek biak, Iratxe Arriolak (EH Bildu) eta Xaber Benitok (Elkarrekin Bizkaia) planteau ditue, hurrenez hurren.

Unzuetak erantzun dauenez, hiltegia ez dago Aldundiaren eskumenen artean, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen artean baino, eta bigarren gaiari jagokonez, “Basozainak ez dirala komunikazino zentroan sartuko” adierazo dau Diputatuak. “Ez dira larrialdiaren jakinarazpena eta larrialdiaren kudeaketea nahastu behar”, gehitu dau.

Gero eta pobrezia gehiago egotea –Izaskun Duque EH Bilduko batzarkideak egindako lehenengo ahozko erantzun eskea– eta sexu esplotazinoaren biktima diran adinbakoei emoten jaken arreteak – Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak planteautako gaia– izan dira oposizinoaren azalpen eskariak sortu dituen beste gai bi.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak amaitutzat emon dau kontroleko osoko saioa, baina aurretik eskertu egin gura izan ditu Iñaki Hidalgok Batzarrei eskainitako “profesionaltasuna, jakituria eta dedikazinoa”. Bizkaiko Batzar Nagusietako ekonomia aholkularia izan da 1984tik, eta bere ibilbide profesionaleko azkenengo Osokora etorri da gaur, erretirau aurretik.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/09/2019

Varias bienvenidas y una despedida han marcado el primer Pleno de Control de las Juntas Generales de Bizkaia en esta legislatura

Finalizada la sesión plenaria, ha dado comienzo el primer Pleno de Control del XI Mandato de las Juntas Generales de Bizkaia. La sesión plenaria de control ha estado marcada por el estreno en el atril del Salón de Plenos de la Casa de Juntas de Gernika de nuevos cargos forales como Sergio Murillo, Diputado de Acción Social, y Ainara Basurko, Diputada de Promoción Económica, de la Diputación Foral de Bizkaia, así como de la juntera Izaskun Duque o el juntero Xabier Benito.

Murillo ha sido objeto de la primera interpelación del orden del día. Arantza Urkaregi (EH Bildu) le ha interpelado sobre las medidas adoptadas por su Departamento para adaptarse al Decreto 126/2019 de centros residenciales para personas mayores en la CAV. Murillo ha contestado que cuentan con un plan de trabajo para adaptar los centros forales, apoyar y orientar a toda la red y desde la Inspección, encauzar todo el proceso. “Cada centro tiene que actuar porque dentro de dos años tendrán que estar cumplimentados todos los requisitos”, ha asegurado el Diputado de Acción Social, para añadir que llegada la fecha tope, 9 de septiembre de 2021, a los centros que no cumplan se les revocará el permiso.

Iratxe Arriola, juntera de EH Bildu, ha interpelado a Elena Unzueta, Diputada de Sostenibilidad y Medio Ambiente sobre la revisión del Plan Integral de Residuos Urbanos. “Es conocida la posición de EH Bildu en torno a los resultados del plan en vigor: vamos por mal camino”, ha asegurado Arriola. Unzueta ha replicado que en Bizkaia se da tratamiento al 100% de los residuos, que está en fase de licitación el encargo a una empresa externa del nuevo Plan y que la recogida orgánica se extenderá a todas las comarcas.

En su interpelación, Xabier Benito (Elkarrekin Podemos) ha inquirido a la Diputada de Promoción Económica sobre las medidas que va a poner en marcha para evitar el cierre de empresas y despidos colectivos en el sector industrial. Ainara Basurko ha asegurado que el Departamento que dirige trabaja desde hace años codo a codo con las empresas para garantizar su futuro y ayudarles a afrontar retos internacionales como el Brexit o la guerra comercial entre China y EE UU, en una labor coordinada con el Gobierno Vasco y Ayuntamientos y con comunicación directa y permanente con trabajadores, dirección y administración concursal de las empresas.

Bea Ilardia, portavoz de EH Bildu, ha formulado la primera pregunta oral del Pleno de Control celebrado hoy, dirigida a Unai Rementería, Diputado General de Bizkaia. Ilardia le ha preguntado si “ha tenido en cuenta la situación procesal del Sr. Murillo y los hechos y circunstancias que están siendo investigados al nombrarle Diputado de Acción Social”. Ilardia ha explicado que Murillo, varios técnicos y responsables del Servicio de Infancia están siendo investigados en una causa penal por la retirada de custodia a una madre.

“Soy conocedor de cómo funcionan los profesionales del Servicio de Acción Social y cómo se toman las decisiones”, ha contestado Rementeria, quien ha añadido que la decisión que ahora está en los tribunales “se tomó en base a cinco informes técnicos de diferentes profesionales”. “Hacemos mal si convertimos esta tribuna en tribunal”, ha añadido el Diputado General.

Elena Unzueta, Diputada de Sostenibilidad y Medio Ambiente, ha contestado a dos preguntas orales sobre la situación generada en el sector ganadero tras el cierre del matadero de Laudio y sobre las medidas técnicas para integrar la guardería forestal en el futuro centro de comunicaciones de la Diputación Foral de Bizkaia. Dos cuestiones lanzadas, respectivamente, por Iratxe Arriola (EH Bildu) y Xaber Benito (Elkarrekin Bizkaia).

Unzueta ha respondido que el matadero no es competencia de la Diputación, sino del Gobierno Vasco y respecto a la segunda cuestión, la Diputada ha asegurado que “no habrá incorporación de la Guardia Forestal al centro de comunicaciones”. “No hay que confundir la comunicación de la emergencia con la gestión de la emergencia”, ha añadido.

El aumento de la pobreza – en la primera pregunta oral formulada por la juntera de EH Bildu Izaskun Duque- y la atención a menores víctimas de explotación sexual – cuestión planteada por Eneritz de Madariaga, portavoz de Elkarrekin Bizkaia- han sido otras de las cuestiones sobre las que la oposición ha pedido explicaciones.

Ana Otadui, la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha dado por finalizada la sesión plenaria de control, no sin antes agradecer “la profesionalidad, los conocimientos y la dedicación” prestadas a la Cámara Foral por Iñaki Hidalgo. Asesor económico de las Juntas Generales de Bizkaia desde 1984, Hidalgo ha asistido hoy al último Pleno de su carrera profesional, antes de jubilarse.